



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

VITORIA-GASTEIZKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA HASIERAKO ONESPEN AGIRIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE VITORIA-GASTEIZ DOCUMENTO de APROBACIÓN INICIAL



EGIKARITZE-LABURPENA.

2023ko URTARRILA - ENERO 2023

RESUMEN EJECUTIVO.



USANDIZAGA
ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP





Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



AURKIBIDEA

1	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)	1
2	Helburu orokorrak eta antolamendu-irizpideak	2
2.1	Helburuak eta irizpide orokorrak	2
2.2	Helburu estrategiko bakoitzeko proposamenak.....	3
3	Vitoria-Gasteizko lurralde-ereduaren proposamen nagusiak	8
4	Eremuak	15
5	Antolamenduaren eta hirigintza-betearazpenaren etetearen arloko afektazioak	19
6	Proiektatutako antolamenduak indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten eremuak	20

ÍNDICE

1	El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU)	1
2	Objetivos generales y criterios de ordenación	2
2.1	Objetivos y criterios generales	2
2.2	Propuestas por cada objetivo estratégico	3
3	Principales propuestas del modelo territorial de Vitoria-Gasteiz	8
4	Ámbitos	15
5	Afecciones en materia de suspensión de la ordenación y ejecución urbanística	19
6	Ámbitos en los que la ordenación proyectada altera la vigente	20



1 Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)

HAPO hiri antolamenduko agiri estrategiko bat da, gure hiriaren egoera aztertu ostean, landa-eremuarena eta bizi garen era, etorkizuneko erronkei aurre egiten diena hirigintza-teknika egokien bidez.

Lurzoruaren erabilerak eta eraikigarritasunak arautzen dituen araudi juridikoa, zein erabilera eta jardura garatu daitezkeen zehazten du. Eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, eta udalerraren garapenaren gaineko zuzeneko ondorio ekonomikoak dauzka.

Aurreko agiriaren onespina 2003. urtean eman zen. Harrezkero, hiriaren egoera asko aldatu da:

- Aurreko HAPOren garapen maila altua eta hirigintza-munta handiko berrikuspen partzialen (birdentsifikazioak) onespina. Vitoria-Gasteizek bere hiri-eredua birplanteatzea behar du oro har.
- Aldaketak ingurune sozioekonomikoan.
- Arauen eta legeen aldaketa garrantzitsuak. Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokitu beharra.

Vitoria-Gasteizek bere hiri-eredua birplanteatzea behar du oro har; horregatik, Udalak HAPO berri baten berrikuspenari eta onespinari ekin dio orain.

1 El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU)

El PGOU es un documento estratégico de ordenación urbana, que, tras analizar la situación de nuestra ciudad, la de la zona rural y la forma en la que vivimos, hace frente a los desafíos del futuro mediante las técnicas urbanísticas apropiadas.

Norma jurídica que regula usos del suelo y edificabilidades, define qué usos y actividades pueden desarrollarse, dónde y en qué cantidad. Establece derechos y obligaciones, y tiene repercusiones económicas directas en el desarrollo del municipio.

La aprobación del documento anterior se llevó a cabo en el año 2003. La situación de la ciudad ha variado mucho desde entonces:

- Alto grado de desarrollo del PGOU anterior y aprobación de revisiones parciales (redensificaciones) de alto calado urbanístico. Vitoria-Gasteiz requiere de un replanteamiento del modelo de ciudad con carácter global.
- Cambios en el entorno socioeconómico.
- Importantes modificaciones normativas y legislativas. Obligatoriedad de adaptación a la Ley del Suelo 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz requiere de un replanteamiento del modelo de ciudad con carácter global, por ello, el Ayuntamiento aborda ahora la revisión y aprobación de un nuevo PGOU.

2 Helburu orokorrak eta antolamendu-irizpideak

2.1 Helburuak eta irizpide orokorrak

Udalerriaren etorkizuneko erabakiak zein erreferentzia-esparrutan begiratu eta orientatu behar diren oso erakunde desberdinek egindako lurralde-antolamenduko azterlan eta tresnetan islatzen da. 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorreko Helburuek (GIH), besteak beste, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotako estrategien artean, bete beharreko gako orokorrak finkatzen dituzte, eta estrategia horiekin hiriaren konpromisoa irmoa da.

Puntu honetan, 2030 Agenda barruan hirigintza-plangintzako ekintza gehienak garatzen diren esparrua "Hiri eta Komunitate Jasangarriak" 11. GIH berariazko eremuarekin lotuta badago ere, agerian jarri behar da bai GIHak eta HAPOa zeharkako izaerakoak direla.

Natura-ingurunea zaintzea eta babestea, bai natura-balio handieneko elementuak, bai nekazaritza eta abeltzaintza-ekoizpeneko lurzoruak, funtsezko helburutzat hartu behar da lurzoru urbanizaezinaren konfigurazioan, eta Natura 2000 Sarea osatzen duten elementuen erregulaziora eta sektoreko araudira, hala nola, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSra, Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSra, Hezeguneen LPSra, etab. egokitu behar da.

Aurreko faseetako azterketa-lanetik ondoriozta daitekeenez, uste da aurreko planak gehiegizko dimentsioa duela bizitegi- eta ekonomia jarduera- ahalmenari dagokienez, etorkizuneko Plan Orokorraren erreferentzia-aldirako aurreikusitako etorkizuneko beharrei erantzuteko. Hori dela eta, egokitzat jotzen da eredu urbanizatu gabeko lurzoruaren babeserantz bideratzea eta hiri hiri-jardueren aurreikuspenak indartzea finkatuan, hiri trinkoaren helburua indartzuz, lurzoruaren eta haren baliabideen optimizaziorako.

Ondorioz, hiri-berroneratze eragiketen bidez eta ondare eraikiaren birgaitzearen bidez auzoak berreskuratzea, HAPO berriaren bereizgarri izan behar da, aldi berean, bere ahalmena indartuko duten industria-lurzoruak ekintzekin bateratuz. Hori guztia, hiri orekatu eta kohesionatu batera bideratua.

Hirigintza-helburu guzti horiek hiriaren klima-kalteberatasuna kontuan izatera zuzenduak joan behar dira eta klima-aldaketan ondorioei erantzun dieten plangintza irizpideak ezarriko dituzte.

Beraz, HAPOk honezkero adostutako ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko helburu estrategikoei eutsiko die, zeintzutan oinarriturik egituratu diren orain arte garatutako lanak, eta Aurrerakinean islatu izan direnak, lurralde-eredu neurritsu eta ez-hedakor baten aldeko apustua eginez.

Hala, HAPOren idazketarako oinarritzko irizpide izan direnak, honako helburu estrategiko hauen gainean finkatu dira, 17 GJHetarako eta 2030 Agendak ezarritako jomugekin bat datozenak:

1. Hiri trinko, konplexu eta kohesionatu bat
2. Landa-ingurunearen eta herrien bultzada eta babesa
3. Natura, kultura eta paisaia ondarea balioan jartzea
4. Lurralde iraunkor eta energetikoki efizientea

2 Objetivos generales y criterios de ordenación

2.1 Objetivos y criterios generales

El marco de referencia en el que se deben mirar y orientar las decisiones futuras del municipio vienen reflejadas en distintos estudios e instrumentos de ordenación territorial desde muy diversos organismos. La Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) entre otras estrategias plasmadas en las Directrices de Ordenación del Territorio fijan las claves globales a cumplir, estrategias con las cuales el compromiso de la ciudad es firme.

En este punto cabe mencionar que, si bien el marco en el que se desarrollan la mayor parte de las acciones de planificación urbanística dentro de la Agenda 2030 están relacionadas con el ámbito específico del ODS 11 "Ciudades y Comunidades Sostenibles", hay que incidir en el carácter transversal de los ODS y del propio PGOU.

La preservación y protección del medio natural, tanto de sus elementos de mayor valor naturalístico como de los suelos de producción agrícola-ganadero, debe considerarse un objetivo primordial en la configuración del suelo no urbanizable, adaptándose a la regulación de los elementos que componen la Red Natura 2000, normativa sectorial como el PTS agroforestal, PTS de ordenación de ríos y arroyos, PTS de zonas húmedas, etc .

Tal y como se desprende del trabajo de análisis de fases anteriores, se considera que el Plan anterior tiene sobredimensionada la capacidad residencial y de actividades económicas como para atender las necesidades futuras previstas para el periodo de referencia del futuro Plan General. Por este motivo, se considera oportuno reconducir el modelo hacia la preservación del suelo no urbanizado y reforzar las previsiones de actividades urbanas en la ciudad consolidada, reforzando el objetivo de ciudad compacta para una optimización del suelo y sus recursos.

En consecuencia, la recuperación de los barrios por medio de operaciones de regeneración urbana y rehabilitación del patrimonio edificado deben ser señas de identidad del nuevo PGOU, combinando, a su vez, acciones en los suelos industriales que potencien su capacidad. Todo ello, orientado hacia una ciudad equilibrada y cohesionada.

Todos estos objetivos urbanísticos deben ir orientados a tener en cuenta la vulnerabilidad climática de la ciudad y establecerán criterios de planificación que den respuesta a las consecuencias de las alteraciones climáticas.

Por lo tanto, el PGOU mantendrá los objetivos estratégicos ambientales, económicos y sociales ya consensuados en los que se han estructurado los trabajos desarrollados hasta la fecha y que han tenido reflejo en el Avance, apostando por un modelo territorial contenido y no expansivo.

Así, los objetivos estratégicos sobre los que se fijan los criterios de base para la redacción del PGOU y que están alineados con las metas establecidas para los 17 ODS y por la Agenda 2030 son los siguientes:



5. Lurraldearen oreka ekonomikoa
6. Vitoria-Gasteiz, guztiona eta guztionatzat (aurreko guztien zeharkako helburu estrategikoa)

7. Una ciudad compacta, compleja y cohesionada
8. Impulso y protección del medio rural y los pueblos
9. Puesta en valor del patrimonio natural, cultural y paisajístico
10. Un territorio sostenible y energéticamente eficiente
11. Equilibrio económico del territorio
12. Vitoria-Gasteiz, de y para todas las personas (objetivo estratégico transversal a todos los anteriores)

2.2 Helburu estrategiko bakoitzeko proposamenak

1. HE Hiri trinkoa, konplexua eta kohesionatua

Egoera honen aurrean, eta hautemandako joerak zuzentze aldera, irizpide berri batzuk ezartzea proposatzen da, hiria bere jardura askotariko eta mistoekin bat etor dadin, bertako biztanleentzako bizitza irisgarria eta osasungarria sustatuz.

Horregatik, hiria trinkotzearen eta birdentsifikatzearen aldeko apustua egiten da, orain arte garatu ez diren aurreko HAPOan aurreikusitako sektore edo eremu berriak "kolonizatzea" saihestuz.

Helburuak, halaber, hiri finkatua indartzean finkatzen dira, hiri-eremu osasungarri, kultural eta sozialki orekatua lortzeko behar den masa kritikoa lortzeko, zerbitzu eraginkorrak eta herritarrentzat irisgarriak izango dituenak.

Udalak auzorik zaharrenak aztertzen ditu, eta, horri esker, haien gabezia nagusiak antzeman eta konponbideak aurki daitezke, ondare eraikia eta urbanizatua birgaitzeko printzipioa oinarri hartuta, auzoak berroneratzeko. Auzoen birgaitzea eta berroneratzea sustatzeak biztanleriari eustea eta hiri konplexu eta kohesionatu baten helburuak betetzea errazten du.

Espazio degradatuak berroneratzea, hala nola erabiltzen ez diren instalazioak edo egoera txarrean dauden etxebizitzak dauzkaten espazioak, bere berreskurapenerako aukera txertatuak dira, dinamismoa eta bizitza soziala emateko gaitasuna duten beste eremu batzuk betetzeko aukera eskainiz. Era berean, paper garrantzitsua jokatzeko du hiriak industrialdeekin duen harremana ebazpen atseginagoekin hobetzeak, bere indarberritzea ahalbideratuz.

Hiri trinkoaren alde egiteak mugikortasun jasangarria bultzatzen du, distantzia txikien mugimenduak, garraio publikoa eta mugikortasun modu alternatibo edo bigunak bultzatzea ahalbideratzen du. Aparkaleku intermodalak bultzatzea tranbia-sarearekin eta BEIarekin, hirigunean beharrezkoak ez diren mugimenduak saihesteko.

Helburu horiek guztiek 3. GIH ("Osasuna eta Ongizatea"), 10. GIH ("Desberdintasunak Murriztea"), 13. GIH ("Klimaren aldeko Ekintza") eta, jakina, 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Iraunkorrak") xedeen isla dira.

2.2 Propuetas por cada objetivo estratégico

OE 1. Ciudad compacta, compleja y cohesionada

Ante el presente escenario y con el fin de corregir las tendencias detectadas, se propone fijar unos nuevos criterios orientados hacia la compacidad de una ciudad relacionada con sus actividades diversas y mixtas, fomentando una vida accesible y saludable para sus habitantes.

Por ello, se apuesta por la compactación y redensificación de la ciudad, evitando la "colonización" de nuevos sectores o áreas previstas en el PGOU anterior y que no han sido desarrolladas hasta la fecha.

Los objetivos se fijan, también, en el refuerzo de la ciudad consolidada para obtener la masa crítica necesaria para la obtención de un espacio urbano saludable, cultural y socialmente equilibrado, con servicios eficientes y accesible para la ciudadanía.

El análisis de los barrios más antiguos realizado por el Ayuntamiento está permitiendo detectar sus principales carencias y abordar soluciones, que tomando como base el principio de la rehabilitación del patrimonio edificado y urbanizado se extienda a la regeneración de sus barrios. Potenciar la rehabilitación y regeneración de los barrios facilita la revitalización de los mismos, el mantenimiento de la población y cumplir con los objetivos de una ciudad compleja y cohesionada.

La regeneración de espacios degradados, con instalaciones en desuso o viviendas en mal estado, son oportunidades incorporadas para su recuperación ofreciendo la oportunidad de colmatar otras zonas con capacidad para aportar dinamismo y vida social. También juega un papel importante la mejora de la relación de la ciudad con las zonas industriales con soluciones más amables que permitan su revitalización.

Apostar por la ciudad compacta favorece la movilidad sostenible, permite impulsar los movimientos de pequeñas distancias, el transporte público y los modos alternativos o blandos de movilidad. Impulsar los aparcamientos intermodales con la red de tranvía y el BEI para evitar movimientos innecesarios en el centro de la ciudad.

Todos estos objetivos tienen su reflejo en metas de los ODS 3 "Salud y Bienestar", ODS 10 "Reducción de las desigualdades", ODS 13 "Acción por el Clima" y por supuesto el ODS 11 "Ciudades y Comunidades Sostenibles".



OE 2. Landa-ingurunea eta herriak bultzatu eta babestea

Egoera zuzentzeko, herrien ezaugarri tipologikoak mantentzea proposatzen da, hiri-izaera nabarmena duten irtenbide edo proposamenen aurrean, neurritz kanpoko eskaladun sustapen-eragiketen aurrean, kale-sekzioen aurrean, lursailen itxieren aurrean, etab., horietako batzuk lo-hiri bihurtzea saihesteko ezarritako zehaztapenak ezarri.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako herrien berezko hiri-jarduera sustatzea, haien erakargarritasuna errazteko, berezko ezaugarriak desitxuratu gabe, era berean, nekazaritza-jardueren garapena erraztuz haien ingurunean.

Beren balio tradizionalak hiriaren berezko presio edo moduen aurrean babestea ahalbideratuko duen Herrien tipologien araudi bat ezartzea.

Herrien bizitegi-ahalmena, horietako bakoitzerako zentzuduntzat jotzen den ahalmenera egokituko da, unean uneko arazoan araber.

Atal honetan, helburuek xede hauek dituzte: 2. GIH ("Goserik ez"), 15. GIH ("Lehorreko Ekosistemen Bizitza"), 13. GIH ("Klimaren Aldeko Ekintza") eta 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Jasangarriak").

OE 3. Natura, kultura eta paisaia ondareari balioa ematea

Etorkizuneko erronken aurrean funtsezkoa da ingurune fisikoa bizi-euskarri gisa eta ingurumenaren kalitatea hobetzeko euskarri gisa hartzea, batez ere lurraldearen oreka iraunkorraren eta klima-aldaketara egokitzearen aurrean.

HAPOk lurzoru urbanizaezina planifikatuko du, eta kategorien arabera erabileren arautegia ezarriko du, honako hauek kontuan hartuta: naturagune babestuak (Natura 2000 Sarea, Ramsar); azpiegitura berdea eta urdina; ekosistemen zerbitzuak; paisaia kulturalak; mugikortasuna; baliabideen kudeaketa jasangarria; materialen eta energiaren zirkulazioa; landa-habitata eta kokaguneen sistema.

Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan kontuan hartuko dira zerbitzu ekosistemikoak (habitata, euskarria, erregulazioa eta kulturalak), hirigintza-arauak hobeto definitzeko.

Lurraldea modu integralean ulertzea, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko harremana azpimarratuz, eta jaso eta aitortu beharko diren lotura-elementuen aurreikuspena ezarri.

Oro har, naturaguneak kontserbatzeko eta hiriguneekin erlazionatzeko, azpiegitura berdea sustatuko da, honako hauen bidez:

- Ibai eta ur-inguruneak hobetzea.
- Landa eta hiri-habitataren integrazioa hobetzea.
- Mugikortasun-sarearen integrazioa hobetzea.

Ilido horretan, "Eraztun Berdea" ibai-ibilguak babestearekin, hiri-inguruntetik landa eremurako trantsizioarekin, aisialdi-gunearekin eta hiriaren birikarekin lotutako azpiegitura bat baino gehiago da;

OE 2. Impulso y protección medio rural y pueblos

Con el fin de corregir esta situación se propone el mantenimiento de la caracterización tipológica rural de los Pueblos frente a soluciones o propuestas de marcado carácter urbano; revertir las operaciones de promoción con escala desproporcionada, modificar las secciones de calle, estudiar los cierres de parcelas, etc. son determinaciones incorporadas para evitar la transformación de los pueblos tradicionales en pueblos dormitorio.

Potenciar la actividad urbana propia de los Pueblos vinculada a la actividad agrícola ganadera, para facilitar su atractivo sin distorsionar sus características propias, facilitando a su vez, el desarrollo de actividades agrícolas en el entorno de los mismos.

Establecer una regulación de las tipologías de los Pueblos que permitan la protección de sus valores tradicionales frente a presiones o modos propios de la ciudad.

Se adecuará la capacidad residencial de los Pueblos a su capacidad razonable para cada uno de ellos y en función de las problemáticas puntuales que presenten.

En este apartado los objetivos tienen su reflejo en metas de los ODS 2 "Hambre cero", el ODS 15 "Vida de Ecosistemas terrestres", ODS 13 "Acción por el Clima" y de nuevo el ODS 11 "Ciudades y Comunidades Sostenibles".

OE 3. Puesta en valor del patrimonio natural, cultural y paisajístico

Es primordial mantener y reforzar la consideración del Medio Físico como soporte vital y de mejora de la calidad ambiental ante los retos del futuro, especialmente ante el equilibrio sostenible del territorio y la adaptación al cambio climático.

El PGOU planificará el suelo no urbanizable, estableciendo una regulación de usos por categorías teniendo en cuenta los espacios naturales protegidos (Red Natura 2000, Ramsar); la infraestructura verde y azul; los servicios de los ecosistemas; los paisajes culturales; la movilidad; la gestión sostenible de los recursos, la circularidad de materiales y energía; el hábitat rural y su sistema de asentamientos.

Se tendrán en cuenta en la categorización del suelo no urbanizable los servicios ecosistémicos (hábitat, soporte, regulación y culturales) para una mejor definición de las normas urbanísticas.

Entender el territorio de una forma integral haciendo hincapié en la relación entre el ámbito rural y el urbano, estableciendo la previsión de elementos de relación que deberán ser recogidos y reconocidos.

Con carácter general, para la conservación de los espacios naturales y su relación con las áreas urbanas, se potenciará la Infraestructura Verde mediante la:

- Mejora de los entornos fluviales y acuáticos.
- Mejora de la integración del hábitat rural y urbano.
- Mejora en la integración de la red de movilidad.

En este sentido, el "Anillo Verde" es más que una infraestructura relacionada con la protección de cursos fluviales, transición del medio urbano con el rural, zona recreativa y pulmón de la ciudad; representa un



hiriaren nortasunari berari lotutako kultura eta paisaia-balioak bereganatu dituen sinboloa da. Horiek sustatzea eta indartzea HAPO berrian kontuan hartu beharreko helburua da.

Halaber, ibilbide berdeak, oinezkoentzako ibilbideak eta bizikletentzako ibilbideak sartu eta indartu dira, hiriaren eta landa-ingurunearen arteko eta, bereziki, herriekiko harremanetarako tresna gisa.

Udal-katalogoa tresna garrantzitsua da Vitoria-Gasteizko kultura, paisaia, arkitektura eta hiri-balioak defendatzeko, eta, beraz, haren edukien berrikuspen eta eguneratzeari ekin zaio: bizitegi, industria eta zuzkidura-eraikuntza, ibilbide berdeak, hiriko espazio bereziak, lurraldeko elementu txikiak, eta abar, Euskal Kultura Ondareari buruzko arau-esparru berrira egokituz.

Atal honen helburuek xede hauek hartzen dituzte beren gain: 6. GIH "Ur Garbia eta Saneamendua", 7. GIH "Energia Eskuragarria eta Ez Kutsagarria", 12. GIH "Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak", 15. GIH eta 11. GIH.

OE 4. Lurralde iraunkorra eta energiari dagokionez eraginkorra

Garatzen ari diren ekintzen ildotik, HAPO berriak jasotzen dituen helburuetako bat da baliabideak eraginkortasunez kudeatzea, emisioen aldetik neutroa den eta energiaren eta elikaduraz auto-hornitu daitekeen hiria lortzeko.

Hiriko mugikortasuna berrantolatzea, ibilgailu pribatuen joan-etorriak murriztea planteatuz, garraio publikoa eta bitarteko alternatibo edo bigunak sustatuz.

Hiri mistoa eta konplexua, auzo bakoitzeko beharrak konpontzeko, hiri barruko mugimenduak saihestuz; eta trinkoagoa, desplazamenduen eraginkortasuna zailtzen duten eta energia-kontsumo handiagoa eragiten duten hedapen berriak saihestuz.

Orientazioagatik eta eguzkitzeagatik baldintza bioklimatikoak baliatzen dituzten eraikinen eraikuntza-sistemen erabilera sustatzea, baita energia-sistema eraginkorren erabilera ere, eta isolamendu eta klimatizazio-baldintza okerrenak dituzten eraikinen birgaikuntzan lan egitea.

Espazio publikoaren diseinua gutxienez baliabide-kontsumo batetik hartu behar da kontuan, hala nola mantentze-prozesuak, energia-kontsumoa, etab.

Energia berriztagarriak ekoizteko sistemak funtsezkoak dira udalerraren gizarte- eta ingurumen-eskaeretara egokitzeko, eskari-puntuetan ezarri daitezkeen erraztuz, hala nola, instalatu ahal daitezkeen eremu egokien identifikazioa.

Bestalde, Vitoria-Gasteiz karbono-hiri neutroa bihurtzeko helburuak, CO₂ atzitze-ahalmen handiena duten lurzoruen gaineko jardueren baldintzei buruzko neurriak hartzera garamatza.

Atal honetan jasotako helburuek eragina dute 3. GIH ("Osasuna eta Ongizatea"), 6. GIH ("Ur Garbia eta Saneamendua"), 7. GIH ("Energia Eskuragarria eta Ez Kutsagarria") eta 11. GIH (nagusiki) helburuetan.

símbolo que ha adquirido valores culturales y paisajísticos asociados a la propia identidad de la ciudad. Su potenciación y refuerzo es un objetivo contemplado en el nuevo PGOU.

Así mismo, se han incorporado y potenciado los itinerarios verdes, peatonales y ciclables, como instrumento de relación entre ciudad y medio rural, y en especial con los pueblos.

El catálogo municipal constituye una herramienta importante en la defensa de los valores culturales, paisajísticos, arquitectónicos y urbanos de Vitoria-Gasteiz, por lo que se ha procedido a su revisión y actualización de sus contenidos, edificación residencial, industrial, dotacional, itinerarios verdes, espacios singulares de la ciudad, elementos menores en el territorio, etc. adaptándolo al nuevo marco regulatoria sobre el Patrimonio Cultural Vasco.

Los objetivos de este apartado asumen metas de los ODS 4 "Educación de calidad", ODS 6 "Agua limpia y saneamiento", el ODS 7 "Energía asequible y no contaminante", ODS 12 "Producción y Consumos responsables", ODS 15 y el ODS 11.

OE 4. Ciudad sostenible y energéticamente eficiente

En línea con las acciones en desarrollo, gestionar eficientemente los recursos con el fin de conseguir una ciudad neutra en emisiones y autoabastecible energética y alimentariamente es uno de los objetivos que contempla el nuevo PGOU.

Reordenar la movilidad de la ciudad planteando la reducción de los desplazamientos en vehículos privados, fomentando el transporte público y medios alternativos o blandos.

La ciudad mixta y compleja como objetivo para resolver las necesidades en cada barrio evitando movimientos dentro de la ciudad; y más compacta, evitando nuevas expansiones que dificulten la eficiencia de los desplazamientos y supongan mayor consumo energético.

Fomentar el uso de sistemas constructivos de los edificios que aprovechen sus condiciones bioclimáticas por orientación y soleamiento, sistemas de energía eficiente y trabajar en la rehabilitación de los edificios con peores condiciones de aislamiento y climatización.

El diseño del espacio público debe considerarse desde un planteamiento de mínimo consumo de recursos, como son los procesos de mantenimiento, consumo energético, etc.

Los sistemas de producción de energías renovables son clave para afrontar una adaptación a las demandas sociales y medioambientales del municipio, facilitándose su implantación en los puntos de demanda, así como la identificación de zonas adecuadas para su posible instalación.

Por otro lado, el objetivo de convertir Vitoria Gasteiz en una ciudad neutra en carbono lleva a tomar medidas en cuanto a las condiciones de las actividades sobre los suelos con mayor capacidad de captación de CO₂.

Los objetivos recogidos en este apartado están influyendo en diferentes metas de los ODS 3 "Salud y Bienestar", ODS 6 "Agua limpia y Saneamiento", ODS 7 "Energía asequible y no contaminante" y ODS 11 principalmente.

OE 5. Lurraldearen oreka ekonomikoa

Lehen sektoreko jardueraren garapenari dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintzako eta lehen eraldaketako jarduerekin zerikusia dutenak sustatzen dira, horiek ezartzeko baldintzak malgutuz. Ezarpen horrek lurzoruen baldintza naturalak eta paisaia harremana errespetatu beharko ditu, eta sektorearen beharrak ere bai.

Herrietan eragin txikia duten eraldaketa-prozesuen bizikidetzat bultzatzea, eta, aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak harmonizatzea, kalitate handieneko hurbileko merkataritza indartuz.

Hirian integratutako hirugarren sektoreko jarduera funtsezko elementua da auzoetako gizarte-bizitzaren aberastasunean; horregatik, bizitegi-erabilerekin bateragarriak diren guztiak ezartzea malgutu da.

Industria-ahalmena etorkizuneko HAPOaren indarraldirako aintzat hartutako aurreikuspenetara hobeto egokitutako eskarira egokitzea, planeamenduan hiri-bilbean lurzoru berriak sartzearen aldeko apustua eginez, horrela landa-ingurunearen gaineko presioa murriztuz.

Industrialde zaharrenak biziberritzea eta leheneratzea, aukera-espazioak eraldatuz eta azpiegiturak berrituz, dauden baliabideak optimizatzeko formula gisa.

Atal honetako helburuak 8. GIH ("Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa"), 9. GIH ("Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura"), 11. GIH ("Hiri eta Komunitate Jasangarriak") eta 12. GIH ("Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak") xedeetan txertatzen dira.

OE 6. Vitoria-Gasteiz, guztiona eta guztiontzat

Aurreko ataletako irizpide eta helburuek herritarren bizi-kalitatea hobetzea ekarri behar dute, oro har, eguneroko bizitzako funtsezko alderdiei eragiten baitie.

Azken batean, plangintzaren irizpideak birbideratzea, hiriko dinamikak aberastuko dituzten alderdi global anitzagoak txertatuz. Trinkotasunak, jardueren konplexutasunak eta auzoak berritzeak eragina izango du zeharkako gaitetan, hala nola:

- Osasuna hobetzea.
 - Gure eguneroko bizitzan mugitzeko modua.
 - Etxebizitza kalitatea, bizigarritasun-baldintzengatik.
- Hiri inklusiboa eta generoagatik diskriminaziorik gabea.
 - Kalitatezko espazio publiko seguruak, irisgarriak eta atseginak.
 - Bizitza eta jarduera sozial eta komertziala duten kaleak
- Ingurumen-kalitatea hobetzea.
 - Inpaktu akustikoak murriztea.
 - Airearen kalitatea hobetzea.
 - Hiri-bilbean sartutako berdeguneak.

OE 5. Equilibrio económico del territorio

En cuanto al desarrollo de la actividad del sector primario, se impulsan las relacionadas con las agroindustrias y de primera transformación, flexibilizando las condiciones para su implantación. Esta implantación deberá ser respetuosa con las condiciones naturales de los suelos y su relación paisajística, así como con las necesidades del sector.

Favorecer la convivencia de procesos de transformación de bajo impacto en los pueblos a la vez que se armonizan las explotaciones agroindustrias, potenciando el comercio de proximidad de mayor calidad.

La actividad terciaria integrada en la ciudad es un elemento fundamental en la riqueza de la vida social de los barrios, por ello se ha flexibilizado la implantación de aquellas que sean compatibles con los usos residenciales.

Ajustar la capacidad industrial a una demanda más ajustada a las previsiones estimadas para la vigencia del futuro PGOU, apostando por incorporar en el planeamiento nuevos suelos en la trama de la ciudad reduciendo así la presión sobre el medio rural.

Revitalizar y regenerar los polígonos más antiguos transformando sus espacios de oportunidad y renovando sus infraestructuras, como fórmula para la optimización de los recursos existentes.

Los objetivos de este apartado se integran en metas de los ODS 8 "Trabajo decente y crecimiento económico" ODS 9 "Industria, Innovación e Infraestructura", ODS 11 "Ciudades y Comunidades sostenibles", y ODS 12 "Producción y Consumos responsables"

OE 6. Vitoria-Gasteiz, de y para todas las personas

Los criterios y objetivos de los apartados anteriores deben redundar en una mejora en la calidad de vida de la ciudadanía en términos generales, al afectar a aspectos fundamentales de la vida cotidiana.

En definitiva, una reorientación de los criterios del planeamiento incorporando aspectos globales más variados que enriquezcan las dinámicas de la Ciudad. La compacidad, la complejidad de sus actividades, la renovación de sus barrios influirá y será soporte para mejorar en cuestiones transversales como:

- Mejora de la salud.
 - El modo de movernos en nuestra vida diaria
 - La calidad de las viviendas por sus condiciones de habitabilidad
- Ciudad inclusiva y sin discriminación por género.
 - Espacios públicos de calidad, seguros, accesibles y amables.
 - Calles con vida y actividad social y comercial.
- Mejora de la calidad ambiental.
 - Reducción de los impactos acústicos.
 - Mejora de la calidad del aire.
 - Zonas verdes integradas en la trama urbana.



- Kultura-ondarearen balioa nabarmentzea, eraikitakoa nahiz immateriala, bertako biztanleen nortasun-ikur gisa.
- Berdintasunezko eta bidezko hiria
 - Energia garbia, eskuragarria eta segurua
 - Auzoak berroneratzea, desberdintasunen aurka borrokatzeko

Atal honetako helburuak helburu hauetan sartzen dira: 1. GIH "Pobrezia Desagerraraztea", 3. GIH "Osasuna eta Ongizatea", 5. GIH "Genero-berdintasuna", 10. GIH "Desberdintasunak Murriztea", 11. GIH "Hiri eta Komunitate Jasangarriak", 15. GIH "Lehorreko Ekosistemen Bizitza" eta 16. GH "Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak".

- Puesta en valor del patrimonio cultural, tanto el construido como el inmaterial, como seña de identidad de sus habitantes.
- Ciudad igualitaria, justa y equitativa
 - Energía limpia, asequible y segura
 - Regeneración de barrios para luchar contra las desigualdades

Los objetivos de este apartado se integran en metas de los ODS 1 "Fin de la pobreza", ODS 3 "Salud y bienestar", y ODS 5 "Igualdad de género", ODS 10 "Reducción de las desigualdades", ODS 11 "Ciudades y Comunidades Sostenibles", ODS 15 "Vida de Ecosistemas terrestres" y ODS 16 "Paz, justicia e instituciones sólidas".

3 Vitoria-Gasteizko lurralde-ereduaren proposamen nagusiak

Egikaritze-Laburpenaren eginkizun nagusietako bat da agiri berriak aurreko plangintzarekiko aurreikusten dituen aldaketa nagusiak adieraztea.

Plan Orokor berriak aurreko dokumentuaren edukiaren zati handi bat euskarri bezala hartu eta balioztatu egiten badu ere, esparru berri bat ezartzen du aurretik adierazitako irizpideak oinarri hartuta, ondoren deskribatzen diren desberdintasun garrantzitsuekin:

1. Lurzoruaren sailkapena.

Eredu trinko baten aldeko apustuak, gaur egun eraldatuta dagoen lurzoria birdentsifikatuko duena landa-lurzoruaren okupazio berrien aurrean, lurzoru-klase ezberdinen mugaketara darama, oraindik garatuak izan ez diren 2003ko Plan Orokorrean aurreikusitako lurzoru urbanizagarriak desklasifikatuz (25 sektore). Hiriko 17. eta 18. sektoreak nabarmendu behar dira, herrietan aurreikusitako zabalkuntzekin bat datozen gainerakoen aldean.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruei dagokienez, lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa gehitzen da Teknologia Parkearen handitzea eta VIAP mantentzen da lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe bezala aireportuaren ingurunean.

Zentzu honetan, jarduera ekonomikoetarako zona edo eremu berriak ezarri dira hiri-lurzoruan Mariturriko eremuan (MARITURRI INDUSTRIALA HAPB) eta Arriagako eremuan, hala nola berroneratze-areak Betoño-Gamarrako industria-eremu finkatuan.

Era berean, zenbait eremutan lurzoruaren sailkapenean moldaketak egin dira, adibidez, Armentiako basoan, lurzoru urbanizaezin bezala jasotzen dena.

Moldaketa hauen emaitza bezala, lurzoru urbanizaezinen azalera 922 Ha-tan areagotu da gutxi gora behera, gehiena landa-lurzoruak izanik.

Beraz, Plan Orokorrean ez dira lurzoru urbanizagarri berriak jasotzen, hurrengo eskeman islatzen den bezala:

3 Principales propuestas del modelo territorial de Vitoria-Gasteiz

Una de las principales funciones del Resumen Ejecutivo es expresar las principales modificaciones previstas en el nuevo documento con respecto al planeamiento anterior.

Si bien el nuevo Plan General se apoya y valida buena parte del contenido del documento anterior, establece un nuevo marco, que tomando como principios los criterios señalados anteriormente, con diferencias importantes que se describen a continuación:

1. Clasificación del suelo.

